

3. Balorezko proposamena

Gure produktuak hainbat **arazo edo betebeharrak asetzen ditu:**

Lehenik eta behin, zapata hauek zure burua ez galtzea ziurtatzen dute, izan ere, haien mekanismo berritzaileari esker jarraitu beharreko norabidea adieraziko dizute.

Sortuko dituzten bibrazio eta soinu ezberdinei esker jarraitu beharreko norabidea eta zebrabideak eta semaforoak non dauden jakitea posible izango da.

Orientatzeko arazoak dituztenentzat edota ikus-ezgaitasuna jasaten dituzten pertsonentzat erabilgarria izango da baita ere.

Gainera, guztiz berritzailea izateaz gain, **gizartearentzako hainbat onura ekarriko ditu:**

Orientatzea eta zure helmugara ailegatzea askoz errazagoa izango baita, eta gainera, ikus-ezgaitasuna jasaten duten pertsonak haien egoerari era errazagoan aurre egiten lagunduko ditu etxetik ateratzeko orduan.

Diseinuari dagokionez, gizarteko biztanle guztietara bideratuta egongo da, mota guztietako estiloetara aplikatuz. Edozein jarduerarako erabilgarriak izango dira; konferentzia baterako, kirola egiteko, egunero erabiltzeko, egun euritsuetarako, jaietarako...

Gure produktua hainbat arlotan da **berritzailea:**

Gure zapata eremu guztietako mapak izango ditu memorian. Plano hauek ordenagailuaren bitartez deskargatu eta eguneratuko dira, eta haietan denetariko informazioa sartuko dugu: dendak, museoak, kiroldegiak, eskolak... non dauden, bai eta errepideak, zebrabideak eta semaforoak ere. Horrela kalean zehar ibiltzea seguruagoa izango da.

Zapataren zolan egongo den mekanismoari esker, mapak gordeta dituenak, gure "GPS"-a guztiz zehatza izango da, eta albo batera edo bestera biratu behar bezain laster emango du abisua geziaren eta bibrazioen bitartez.

Abisu horiek desberdinak izango dira egoeraren arabera:

Zapataren puntan ura eutsi egiten duen pantaila gogor bat egongo da, gezi batzuen bitartez jarraitu beharreko norabidea irudikatuko duena. Geziak ezkerretara seinalatuz gero, ezkerretara egin beharko dugu, eta eskuinetara seinalatuz gero, aldiz, eskuinetara. Gurutze batean edota semaforo baten ostean aurrera egin behar izango dugunean, aurrera seinalatuko duen gezia agertuko da. Bide egokia jarraitzen dugun bitartean, eta gurutzerik edota errepiderik ez daudenean, pantaila beltza mantenduko da. Aldiz, erratu bagara eta buelta eman behar dugunean geziak atzerantz seinalatuko dute. Gezi hauek norabidez aldatu beharreko momentu zehatzean agertuko dira (segundu batzuk lehenago) eta aldaketa egin bezain laster desagertu.

Gainera, zapataren zolan hartu beharreko norabidearen edo semaforo, errepide eta zebrabideen arabeko bibrazioak eragiten dituen modulua egongo da. Geziekin batera bibrazioak ere jarraitu beharreko bidea irudikatuko dute. Izan ere, ezkerretara seinalatzen duen geziarekin batera ezkerreko zapatean bibrazioa sentituko dugu, eskuinerantz seinalatzen duen geziarekin batera, eskuineko zapatean egongo da bibrazioa, aurrera jarraitu behar izango dugunean bi zapatetan egongo da bibrazio jarraitua eta erratu garenean eta atzerantz itzuli behar garenean bibrazioak tartekatuak izango dira, bibrazio pizkabat, gelditu eta bibrazio pizka bat.

Hortaz aparte, soinuak sortuko dituen bozgorailu txikia egongo da, pitidoak hain zuzen ere. Hauek egoera zailenetan entzungo dira, konkretuki errepidera gehiegi urbiltzen garenean (soinu batekin), eta semaforoetara edota zebrabideetara ailegatzen garenean (beste soinu ezberdin batekin).